



HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA

2023ko azaroaren 7ko bilkura

Bi mila eta hogeita hiruko azaroaren zazpian, arratseko zortzitan, Ortzaizeko Herri Biltzarra ohi bezala deitua izan-eta, legeak behartzen duen kopuruan bildu da, biltzarren ohiko lekuan, Jean-Marc OÇAFRAIN auzapeza lehendakari izanik,

Hor zirenak : CASIRIAIN Elena, CHAMALBIDE Corinne, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, GOICOECHEA Iñaki, IDIART Claudine, IÑARRA François, IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie

Barkatuak zirenak : AYÇAGUER Elorri.

Bilkurako idazkari izendatua izan da : DACHAGUER Peio.

Deialdiaren eguna : 2023ko azaroaren 3a

Afitxatze eguna : 2023ko azaroaren 3a

3. ERABAKIA: LANDA EREMUEN ELEKTRIFIKATZEA – 2023ko FUNTS BERDEEN 2.PROGRAMA PROIEKTUAREN ETA HERRIAREN ZATIAREN FINANTZAZIOAREN ONARPENA – 23REP054 AFERA

(9.1nomenklatura)

Auzapezak Herri Biltzarrari jakinarazi dio Territoire d'Energie des Pyrénées Atlantiques-ri eskatu diola honako lanen ikerketa abiatzea: «Ahice» P8 postuari loturiko argiteria publikoaren eraberritzea - Enedis arazo fitxa.

TE64-ko lehendakariak herriari adierazi dio zenbatekoak izanen litezkeen obren gastuak, eta SN COPELEC / CENERGY enpresak eginen dituela.

Auzapezak zehaztu du lan horiek «2023ko 2. Funts Berdeak» Landa Eremuaren Elektrifikatzeko Programara aurkeztuko direla eta Herri Biltzarrari proposatu dio gastua onartzea eta lanen diruztatzea bozkatzea.

Herri Biltzarrak, Auzapezaren azalpenak entzun eta eztabaidaturik,

- **ERABAKI DU**, lehenago aipatu lanen eginaraztea, eta Territoire d'Energie des Pyrénées-Atlantiques erakundeari agindu dio lan horien eginaraztea,
- **ONARTU DITU**, lanen zenbatekoa eta egin beharreko gastua, honelako xehetasunekin:
 - Lanen zenbatekoa zergak barne 9 109.73 €
 - Proiektu sustatzaileari aholkularitza, obra kudeantza eta ezustekoak 910.97 €
 - TE64 ren kudeaketa gastuak 379.57 €

OROTARA

10 400.27 €

- **ONARTU DU, ekintzaren finantzazio aurrekontu plana, honelako xehetasunekin:**

- TE 64 - FV-ren parte hartzea
5 845.41 €
- FCTVA (TE 64-k berreskuratuko duena)
1 643.80 €
- Herriak funts libreekin ordainduko dituen lanak 2 531.49 €
- Herriak funts libreekin ordainduko dituen kudeaketa gastuak funts libreetatik diruztatzekoa)
379.57 €

OROTARA

10 400.27 €

Herriak zehazki ordaindu beharko duena lanen behin betiko kostua ukan eta jakinen da. Gainera, herriak bere parte hartzea funts libreetatik hartzen badu, TE64-k aurrerakinak eskatzen ahalko dizkio, egin dituen lanen arabera.

- **ONARTU DU**, herriaren jabetza pribatua balizko pasaia eskubide baten ematea, eta aukera badenean TE64ri baimena ematea energiaren aurrezte egiaztagirien eskuratzeko
- Honako erabakia legezketasun kontrolera **IGORRI DU**.

Kide kopurua : 15

Hor zirenen kopurua : 14

Balizko boz kopurua : 14

ALDE : 14

KONTRA : 0

ABSTENTZIO : 0

Gorago eman egun, hilabete eta urtean, presente ziren kideek erregistroa izenpetu dute. Laburpen egiaztatuaren baliokoa.

ORTZAIZEN, 2023ko azaroaren 7an

Auzapeza,
Jean-Marc OÇAFRAIN

Betegarria bilakatu den akta,
2023/11/14an publikatu edo notifikatu ondoan,
Eta Prefeturan pausatu ondoan 2023/11/14an.